

ADEL 2017

AULESTI, ANTZERKIA LOTSARIK GABE

Hamabigarrenez segidan, Artedrama Euskal Laborategia (ADEL) gauzatu da Aulestin: antzerkilarien sare, zubi eta harrobi. Segidan datorren kronika, aurten ikasle aritu den baten bizipen pertsonala da.



Ion Olano Carlos

@sartuda

Lotsatuta iritsi nintzen Aulestiko lehen afarira, apirilaren 16ko iluntzean, aterpetxeko lagunarte berrira. Ez nuen inor ezagutzen, ezta inork ni ere. Lotsatuta nengoen, batetik, antzerkian erabat hasiberria naizelako, esperientziarik gabea ia. Eta bestetik, ikaskideei ez nielako hasieratik esan nahi kronika hau idatziko nuela, ADEL barrutik kontatuz ARGIArako. Ni, izatez, ez nindoan kazetari lana egitera, antzerkian murgiltzera baizik; gogotik saiatzera. Ohitura ezak ematen zidan lotsa. Hortaz, arituz baino ezin nuen hura hautsi.

Hamalau laguneko taldean hasi genuen astea, animalia lotsatien pare, Unai eta Garazi Lopez de Armentia anai-arreben eskola-ordu paregabeekin. Haiekin batera eman dugu aste osoan denbora gehien, gorputza esnatuz eta landuz –horrekin hasten eta

amaitzen baita antzezlearen lana-. Arnasaren, zentzumenen eta erritmoaren bidez, bat egiten hasi gara apurka, norbera bere gorputzarekin, eta inguruaz jabetzen pixkanaka, taldekideen gorputzez, elkarrekin eragiten ditugun indarrez. Jolasean aritu gara, umeak aritzen diren seriotasunez. Yoga eta dantza pauso batzuk egin ditugu, edo gogotik saiatu bederen; hala, nekearekin batera sendotzen joan da, oharkabea, taldearen batasuna.

Goizeko eskolak amaitu eta segidan zetorren bazkalordua; bazkaldu, arnasa hartu eta ia segidan hurrengo eskola. Lau eta lau, egunero zortzi ordu inguru, sei egunez, egin kontu... Edonola, gustuz aritu garenez, ordutegi estuan atseginez estutu gara denok, norbera bere pausoan. Aritzearen poderioz, neurria ere hartu diogu erritmo bizi

horri, Aulestiko kale bakarrean gora eta behera, atzera eta aurrera, lanetik atsedenera eta alderantziz. Baina, lehenengo egunean, ohiturarik gabe, ezustean harrapatu ninduen bazkalosteko eskolak: “Barregarri izateaz gozatu”.

Pablo Ibarluzea clown eta pedagogo zen irakaslea. Haren egiteko erak aztoratu nau, goitik behera astindu, barrenak mugiarazi eta pentsamendua irauli. Eta, aurreko hori esanda gezurra badirudi ere, izugarri gozatu dut. Ariketa praktikoen bidez, komentario zorrotzak eginez, ezin argiago erakutsi digu ideia bat: porrotari ez zaiola beldurrik izan behar eta, are gutxiago, barregarri geratzeari. Denok dugula ergel bat maskarapean –baita zuk ere, irakurle-, nolabait ezkututzen saiatzen garen clown bat. Behin hura aurkituta, ikas dezakegula ergel horretaz harro



Astebetetz antzerki-giroa izan da nagusi Aulestin. Argazkian, Ander Lipus antzezlan baten aurkezpena egiten.

DANI BLANCO

egoten eta hura erabiltzen jendeari barre eginarazteko, hau da, plazer emateko. Izan ere, gauza zoragarria da erridikulua, beste batek egiten duenean.

Zubi eta harrobi

Zur eta lur utzi nau irakasleen jakintza mailak, baita haien lanerako gaitasunak ere. Denek ikasi eta lan egin izan dute Euskal Herritik kanpo, eta luxua da esperientzia horren fruituak euskaraz jaso ahal izatea herrian bertan. Esaterako, izan genuen azken irakaslea, Amancay Gaztañaga, benetan argigarria eta lagungarria izan zen. Ariketa zehatzen bidez, pentsamenduaren trabak topatu, eta haiek gaindituz testua nola gorputzeratu ikasten hasi ginen, hartara keinu espresiboaz jabetzen hasteko.

Maisu-maistra horiez gain, Iñigo Ibarra markinarra ere ezagutzen hasteko

» Ikaskideen artean, egundoko talentua: ADELeK argi uzten du hemengo teatroaren potentziala

» Iñigo Ibarra (Ander Lipus) lanean ikustean aiseago ulertzen da inguruan arnasten den antzerki-giro hau

aukera izan genuen eskola orduetan, otorduetan eta abarretan. Iñigo da, hain zuzen, Ander Lipus aktoreari eta bere pertsonaiei bizitza ematen dien pertsona. Hura lanean ikustean, berarekin lanean aritzean, aiseago ulertzen dira hainbat gauza: besteak beste, zergatik arnasten den halako antzerki-giroa inguruan, eta zein lan funtsezkoa betetzen duen berak: lotura eraginkorra izatea, sareak jostea.

Ikaskideen artean egundoko talentua eta gogo nabaritu dut. ADELeK argi erakutsi dit zera: antzerkirik onena egin dezakegula, batere lotsarik gabe, gauden lekutik, garen moduan. Norbera beretik, taldean nahiz bakarka, nolabaiteko sare askean betiere. Egin daitekeela antzerkia herrian, herriarekin eta euskaraz. Neronek gehien baloratu dudana, sakon-sakonean, azken horixe da:



AINHOA RESANO

Egun osoan ia etenik gabe aritu dira ikasleak antzerkiaren alor desberdinak lantzen.

antzerki arteetan egindako murgilaldi osoa, hasi eta buka, euskara hutsean izan dela.

Kalean sarea

Sarearen irudia izan dut kaskoan bueltaka aste osoan –zibernetikoa ez, bestea–. Aulestin denok izan gara bat, sare berean. Herritar gazteenetik zaharrenean, izan inguruko nahiz urruneko bisitari, askotariko langile, laguntzaile, antolatzaitaile... jakina, baita ikasleok ere. Sarean lotura guztiek betetzen dute, funtsean, funtzio bera: elkar jostea. Baina loturek ez dute zertan izan zurrinak eta giltzapekoak; izan daitezke lotura askeak ere, demagun, elkar ematen eta askatzen duten bi eskuren antzera.

Jakina denez, Aulestik kale bakarra du, baina chunka bidek bat egiten dute bertan –metaforaz bada ere–. Zenbat eta bide gehiagok egin bat kalean, bistan da, sendoagoa da sarea. Honezkerok sumatzen da urteetako lan metatuaren indarra: herrian erabat errotuta dagoenez, bertako antzerki giroari distira berezia dario. Aulesti ezagutzen ez zuen honek ere, ADEL zer zen zehatz-mehatz ez zekienak, berehala sumatu du hori. Nire ezjakintasunean, ideia orokor batekin ailegatu nintzen, intuizio apur ba-

» Eta den-dena euskaraz: antzerki murgilaldi honetan hori ere baloratzekoa da

tekin... baina jo eta aurreikuspen oro txiki-txiki utzi du bertan ikusi, entzun, eta bizi izan dudanak.

Eskola orduak amaituta, afaldu ondoren, iluntzero izan dugu euskarazko antzezlan bana –batzuetan bina– gozatzeko aukera. Ikasleontzat zinez interesgarria izan da gure irakasle eta bidaide izan direnek zuzendutako edo antzertutako lanak oholtzan eta kalean ikustea. Ez nuen espero halako ilararik iluntzero, antzerki emanaldiak jendez beteta, gehienetan gainezka. Zenbait kasutan, eserleku berriak inprobisatu behar izan dira, ikuslego osoa aretoan sar zedin. Gainera, herriko Gazte Asanbladakoek egitarau alternatiboz osatu digute antzerki plana, emanaldi eta kontzertuak antolatuz gaztetxean eta plazan.

Antzezlan guztien kalitatea aipaga-

rria da, baita proposamenen aniztasuna ere. Baina beharbada harrigarriena, zera: benetan ohartzen hasia euskal antzerkiak dituen aukera ugarietz eta potentzial ikaragarriez. Egun, itzelezko maila egon badago, eta sekulakoa dator. Sasi guztien gainetik etorriko da betiere, euskaldunon diru publikoa kudeatzen dutenen interes faltari aurre eginez. Orain arte, tiriki-tauki, hutsari kolpeka, titiriteroek eurek atera izan dituzte aurrera harrobi txiki eta oparoak. Aulestiko honek, esaterako, honezkerok eman du fruitu ugari, eta oraindik ezin igarri daiteke zenbat emango duen etorkizunean.

Bat (eta huts)

Astebetetz bat izan naiz ADEleko talde osoarekin: elkar ezagutu dugu lanean eta aisian, nekean eta atsedenean, pozean eta desatseginean. Bat egin dugu, beti bat etorri ez bagara ere. Elkar lotuz eta elkar askatuz, esku askeen antzera, elkarren gogoia elikatuz eta edanez, arnasa hartuz eta elkarri emanez. Antzerki betekada galanta hartu dut egunotan, eta orain, hustasun sentipen berri batek hartu du nire gorputza.

Apirilaren 23a da gaur. Une honetan, astea amaituta, Aulestiko kale bakarra bakarrik zeharkatzen ari naizelarik, barrutik harro sentitzen naiz; lasai, azkenean. Lotsa hautsi dudalako astebetetz, zubia zeharkatu, harrobian aritu, ohituraz ohitu. Gorputzean bilduta daramadan bizipen segida honek kemena ematen dit antzerkiaren bideetan ibiltzen segitzeko. Hemen ezagutu baitut herri ederra lanean, antzerkian ari dena lotsarik gabe. Ez dakit badakizun, irakurle, zertaz ari naizen. Jakin nahi baduzu, badakizu zer egin. ■

**TIPI-TAPA
BAGOAZ!**



**BIZITZA
JASANGARRI
BATERAKO
ERALDAKETA**

www.tipitapabagoaz.info